

# FEMINISMO LESBIKOA NIKARAGUAN

**L**esbianak betidanik egon gara Nikaraguako historian, baina beti saiatu izan dira gure gorputzak, desioak eta plazera ikusezin bihurtzen, baztertzen eta isilarazten arlo guztietan: familian, gizartean eta politikan.

Nikaraguako emakumeek hezkuntzarako, botorako, lanerako eta parte-hartze politikorako dituzten eskubideen aldeko borrokak mende bat baino gutxiago du, diktadura somozistatik<sup>1</sup> hasi eta Ortega-Murilloren egungo diktadura arte, hain zuzen ere. Denbora horretan guztian, feministok gogor egin dugu lan gure eskubideak salatzeke, eskatzeko eta sustatzeko, eta LGBTI+ biztanleriaren eskubideak aldarrikatzeko borroka ere azpimarratu behar dugu.


Nikaraguako sexu-aniztasunaren historia ezin da mugimendu feministak hainbat hamarkadatan herrialdean egin duen borrokatik isolatu, emakumeei ez ezik, lesbianeiei, gayeiei, bisexualak eta transei ere ukatu izan zaizkien berdintasuna, eskubide politikoak, profesionalak, sozialak, familiakoak eta pertsonalak aldarrikatzeko borrokatik, alegia.

Nikaraguako feminismo lesbikoa emakume antolatuen taldeen edo mugimendu feministen barruan sortu eta indartu zen Nikaraguan duela 30 urte baino gehiago. Emakumeen eskubideak eta haien sexu-askatasunak sustatzeko gune

horietan hasi ziren, zehazki, sexu-identitate desberdinak onartzen, eta horien artean identitate lesbikoa.

Baina 2004. urtera arte ez zen lehenengo talde lesbikoa sortu Nikaraguan, **Grupo lésbico Safo** izenekoa, lesbianek, bisexualak eta sexu-langileek koordinatu eta osatzen zutena. Gune lesbiko hori oso garrantzitsua izan zen; izan ere, garai hartan lesbiana asko antolatuta bazeuden ere, Gay gizonak edo emakume Transgeneroak buruzagi zituzten gune mistoetan zeuden. Aipatu behar da talde hori ez zela gune feministatzat hartzen, feminismoarekin edo ikuspegi feministarekin loturarik ez zutela adierazten baitzuten.

2006an **Grupo lésbico Feminista Artemisa** izeneko taldea sortu zen. Talde hori Nikaraguako Mugimendu Feminista osatzen zuten emakume gazteek koordinatu zuten. Erakunde feministak antolatzeke →



# FEMINISMO LESBIKOA NIKARAGUAN

→ gune bat da; bertan hainbat sentsibilizazio-kanpaina eta proposamen politiko egiten dira emakumeen eskubideak eremu guztietan aldarrikatzea sustatzeko. Garai horretan, mugimendu feministak, sexu-aniztasuneko taldeekin batera, salaketa eta eskari publikoko ekintzak egin zituen homosexualitatea kriminalizatu eta LGBTI+ biztanleriaren eskubideak urratzen zituen kode penalaren 204. artikulua indargabetzeko.

2008an lortu zen homosexualitatea despenalizatzea. Ekintza horri esker, sexu-aniztasuneko erakundeen kopuruak gora egin zuen eta LGBTI+ biztanleria ikusgai bihurtu ahal izan zen. Arlo juridikoan aurrerapen handi hau lortu bada ere, LGBTI+ mugimenduak orain arte ez du lortu mugimendu antolatua eta agenda politiko erkidea duen mugimendua izatea.

Talde lesbikoak soilik hartzen baditugu kontuan, ikusiko dugu errealitatea ez dela desberdina. Banakako ahalegin txikiak daude, beren errealitateari buruz hausnartu, errealitate horretan lagundu, errealitate horren inguruan aholkatu eta errealitate hori ikusgai jartzen duten erakunde gisa, baina ez da mugimendu antolatua, ezta agenda politiko erkidea duen mugimendua ere.

Nikaraguan emakume lesbiana izatea guztiz kaltegarria da emakumeen bizitza, eskubideak eta gorputzak errespetatzen ez dituen herrialde batean. Hori dela medio, egunero areagotu egiten dira emakumeek herrialde osoan pairatzen dituzten feminizidioak, bortxaketak, sexu-erasoak, bahiketak eta kaleko jazarpena. Gainera, sistema matxista eta misogino baten etengabeko biktimak gara. Sistema horrek emakumea kriminalizatzea erabakitzen du emakumearen gorputzari buruz erabaki nahi izateagatik bakarrik (tamalez, Nikaraguan abortua zigortuta dago).

Adibidez, sexu-abusuaren biktima izan den neska batek bere bizitza eta osasuna agerian jartzen ditu haurdunaldi behartu batekin; haurdunaldian konplikazioak dituen emakume batek ezin du haurdunaldia

eten osasun-arrazoiengatik; edo bere sexu-orientazioa “zuzentzeko”, ahaideen bortxaketen biktima den emakume lesbiana bat –mota horretako bortxaketa Nikaraguako gizartean ohikoa den gorroto-krimen bat da, zalantzarik gabe– haurdunaldia amaitzera behartuta dago.

Emakume lesbianek pairatzen duten indarkeria Estatuan hasten da, estatuko politika baztertzailleekin, eta gizarte-arloan sendotzen da, emakume horiek pairatzen duten diskriminazioarekin, indarkeriarekin eta marjinazioarekin. Emakume lesbianek ez dute berdintasuneko loturarako, familia bat sortzeko edo adoptatzeko legezko eskubiderik, Nikaraguako familia-kodeak eta esparru juridikoak ez baitituzte familia desberdinak onartzen.

Feminismoa izan da eta hala da orain ere lesbianen eskaeren alde borrokatzeko, eskaera horiek aldarrikatzeko eta eskaera horiei aurre egiteko estrategia nagusia. Oso garrantzitsua da nabarmentzea gune lesbiko gehienak, gaur egun, gune feminista gisa lotzen eta identifikatzen direla, biktima bihurtzen dituzten urraketa desberdinak salatzen ez ezik, beren eskubide guztien aitoren osoa bermatuko duen gizarteraldaketari ekarpena egiteko ere beren burua antolatu nahi duten eta behar hori sentitzen duten emakume gazteen parte-hartzearekin.

Egoera hori zaildu egiten da 2018ko apiriletik aurrera, Nikaraguako historian aurrekaririk ez duen gatazka soziopolitiko bat sortzen denean. Gatazka horretan, Ortega-Murilloren egungo diktadurak –boterean betikotzeko desio aseezinean– bere besorik bortitzena erakutsi du, gizateriaren aurkako krimenak salatzen den pertsona edo mugimendu oro erasoz, jazarritz eta kriminalizatuz.

Gaur egun, mugimendu feministak eta emakume lesbianen talde antolatuek ezin dute jarduerarik, topaketarik, tailerrik edo manifestaziorik egin, orain





inoiz baino babesgabeago baitaude. Gure borroken bozgorailu izatera gonbidatzen ditugu, munduak Nikaraguan gertatzen denari begiratu diezaion eta nazioartean gaitzespenarekin bat egin dezaten. Horrela, espero dugu gaur egungo gatazka sozialari irtenbide baketsu eta demokratikoa eman ahal izatea laster nire Nikaraguan. Emakume eta lesbiana izateak beldurra, bazterketa edo heriotza esan nahiko ez duen Nikaragua bat. Eskubide guztiak errespetatuko direla bermatuko duen eta emakume guztiak indarkeriarik gabeko bizitza bizi ahal izango dugun Nikaragua bat.

arte egiteko aukera eduki arren, lege zentzugabeekin jazartzen eta atxilotzen dituztelako; esate baterako, talde horien ahotsak isiltzeko diseinatutako **ziberdelituen legearekin edo atzerriko agenteen legearekin**.

Nikaraguako emakume lesbiana ekintzaileen eta giza eskubideen defendatzaileen egoera etsigarria da, abusuaren eta krimenaren zigorgabetasuna da nagusi. Estatu espainoleko mugimendu feministak eta mugimendu lesbikoak beren agendak zabaldu behar dituzte eta Nikaraguako emakumeak babestu behar dituzte, bai hemen erbeste-egoeran gaudenak, bai Nikaraguan bizirauteko ahalegina egiten ari direnak, une honetan



**Silvia Zúniga.** Nikaraguako lesbiana aktibista feminista, duela bi urtetik Bilbon erbesteratua dagoena, eta Eh Feministak Nika taldearen kide.

**Ana Pi.** Ilustratzaile eta gidoilari valentziarra, zinema, komikien eta katuen zale. Instagram @anitaescalratita